

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Iruraiz-Gaunako udalerriko kontzejuentzako 2025eko ekitaldiko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak

Udalbatzak, 2025eko urriaren 3ko osoko bilkuran, erabaki zuen Iruraiz-Gaunako udalerriko kontzejuentzako dirulaguntzen 2025eko deialdia eta oinarriak onestea, eta horien testu osoa argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

2025eko azaroaren 15era arteko epea ematen da kontzeju interesdunek dirulaguntzak lortzeko eskaerak aurkez ditzaten, beharrezko agiri guztiekin batera.

Azilu, 2025eko urriaren 7a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALERRIKO KONTZEJUENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK

Iruraiz-Gaunako udalerriko kontzejuen gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzeko udal laguntzen 2025eko deialdia.

1. oinarria. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da udalerriko kontzejuek 2025ean zehar egin edo sustatutako gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzen laguntzea, oinarrizko zerbitzu publikoak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuaz egin badira.

1 kategoria. Gastu arruntak.

2 kategoria. Kontzejuak antolatutako kultura, kirol eta jai jardueretako gastuak.

3 kategoria. Inbertsio gastuak: obrak.

2. oinarria. Entitate onuradunak

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute Iruraiz-Gauna udalerriko kontzejuek, baldin eta udalarekiko eta gainerako administrazio publikoekiko betebeharrak guztiak egunean badituzte.

3. oinarria. Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak

Diruz lagundu ahal izango dira udalerri honetako kontzejuek 2025ean zehar egin edo sustatutako gastu arruntak (argiteria, klorazioa...), obrak eta jarduerak.

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak aplikazio hauen aurrekontu esleipenaren kontura ordainduko dira:

AURREKONTU APLIKAZIOA	AURREKONTU PARTIDAREN DESKRIAPENA	KREDITU ERABILGARRIA
943.434.000	ADMINISTRAZIO BATZARRAK, GASTU ARRUNTAK	40.960,00
943.434.001	ADMINISTRAZIO BATZARRAK, JAIK	5.000,00
943.734.000	ADMINISTRAZIO BATZARRAK, OBRA TXIKIAK	11.512,00

2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorra.

Administrazio batzar eskatzaileek udalarekiko eta gainerako administrazioekiko betebeharrak guztiak egunean izan beharko dituzte.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

— Beste laguntza edo deialdi batzuen bidez diruz laguntzen diren gastu arruntak, inbertsioak edo jardura espezifikoak, diruz lagundu gabeko zatia izan ezik.

— Edarien, otorduen, elikagaien eta abarren gastuak.

4. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa

1 kategoria:

1. Hauek dira dirulaguntzak emateko aintzat hartuko diren irizpideak:

a) 22.000,00 euroko kopuru finkoa ezarri da. Kopuru hori era linealean banatuko da udalerriko hamaika kontzejuen artean. Horrenbestez, kontzeju bakoitzari 2.000,00 euro dagozkie.

b) Gastu arruntetarako partidaren gainerako zenbatekoa (18.960,00 euro), proportzioan banatuko da, kontzeju bakoitzak 2025eko urtarrilaren 1ean eroldaturik dituen biztanleen arabera.

Zenbateko horiek, bakarka edo beste laguntza batzuekin batera, ezingo dira izan eskaera egin duen administrazio batzarrak bere gain hartutako gastu arrunt gisa justifikatutako zenbatekoak baino handiagoak; alegia, inola ere ezingo da gainfinantzaketarik izan.

Administrazio batzarren batek biztanle kopuruagatik legokiokkeen kopurua baino gastu arrunt txikiagoa justifikatzen badu, kreditu soberakina proportzioan banatu ahal izango da gainerakoen artean, baina inola ere ezin izango da gainfinantzaketarik izan.

2 kategoria:

5.000,00 euro esleitu dira herriko jaiak antolatzekeko gastuak ordaintzeko, 2025eko aurrekontuaren arabera, eta 943.434.001 partida da jaiak antolatzekeko dirulaguntzari dagokiona.

Dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan banatuko da administrazio batzar eskatzaileen artean, eta ezin izango da, bakarka edo beste laguntza batzuekin batera, laguntza eskatzen den jarduketaren edo jarduketaren kostua baino handiagoa izan; alegia, inola ere ezingo da gainfinantzaketarik izan.

Kreditu soberakina badago administrazio batzar guztiek laguntza eskatu ez dutelako edo legokiokkeen gehieneko zenbatekora iristen ez delako, kreditu soberakinak proportzioan handituko du zenbateko handiagoa justifikatu duten administrazio batzarren laguntza.

3 kategoria:

Udalerriko administrazio batzarrek egiten dituzten obra txikiak eta interes publikokotzat jotzen diren proiektuak edo jarduketak egiteko.

Aurrekontu partida kapital dirulaguntzen 943.434.734 partida da, eta 11.512,00 euroko zenbatekoa du.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka nahiz beste laguntza batzuekin batera, ezingo da izan laguntza eskaeraren xedea den jardunaren kostua baino handiagoa.

Kreditu soberakina badago administrazio batzar guztiek laguntza eskatu ez dutelako edo legokiekeen gehieneko zenbatekora iristen ez delako, kreditu soberakinak proportzioan handituko du zenbateko handiagoa justifikatu duten administrazio batzarren laguntza.

5. oinarria. Eskaerak, agiriak eta kobratzea

Onartutako dirulaguntza osoa jasotzeko, gastu arruntak, obrak eta jarduerak 2024ko azaroaren 15a eta 2025eko azaroaren 15a bitartean eginak izan behar dira.

Eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu behar dute udal bulegoetan:

1. Udaletxean eskuratu daitekeen deialdi honetarako inprimaki eskaera, administrazio batzarreko lehendakariak sinatua.

2. Beste erakunde edo organismo batzuetan izapidetutako dirulaguntza eskaerak jasotzen dituen zerrenda zehatza eta jasotako dirulaguntzen frogagiriak.

3. Inbertsioak finantzatzeko plana.

4. Eskatutako dirulaguntzaren xede diren gastu arruntak fakturak edo enpresek egindako gastu eta fakturazio ziurtagiriak.

5. Administrazio batzarreko lehendakariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, laguntza lerro hauen kargura jasotako zenbatekoak administrazio batzarren gainfinantzaketa ez dakarrela adierazten duena.

Egoki irizten bazaio, adierazitako dokumentazioaz gainera, dirulaguntza emateko beharrezkotzat jotzen den zernahi dokumentu, frogagiri edo faktura eskatu ahal izango da.

6. oinarria. Agiriak aurkeztea

Dirulaguntza deialdia egindakoan, dirulaguntza eskaera eta dokumentazioa udal bulegoetan aurkeztu ahal izango dira. Dirulaguntza eskaerak eta frogagiriak aurkezteko epea 2025eko azaroaren 15ean amaituko da herri guztientzat.

Ezarritako epea igaro eta agiriak aurkeztu ez dituzten kontzejuek deialdi honen arabera emandako dirulaguntza galduko dute.

Salbuespenez, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik (data ahaztea ez da onartuko justifikatutako arrazoitzat), eta betiere udalak esanbidezko ebazpena ematen badu, epe hori bi hilabetez luzatu ahal izango da gehienez ere.

7. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten kontzejuek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

— Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza ematen zaiola jakinarazten zaionetik hamar egun igaro baino lehen onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio dirulaguntzari, dirulaguntza onartzen duela esan nahiko du.

— Dirulaguntza jasotzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzea.

— Udalaren egiaztapen eta finantza kontrola onartzea.

— Iruraiz-Gaunako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste erakunde eskudunen batek eskatutako argibide oro ematea.

— Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezte hutsak berekin dakar oinarri hauek ezagutzea eta onartzea.

8. oinarria. Eskaerak aztertu eta ebaztea eta dirulaguntzak ordaintzea

Idazkaritza-kontuhartzaitza izango da instrukzio organoa. Organo horrek ofizioz egingo ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezko jardura guztiak, eta horiek baliatuz egingo du ebazpen proposamena.

Iruraiz-Gaunako udalbatzak du dirulaguntzak ebazteko eskumena, dagozkion frogagiriak aurkeztu eta gero. Horiek eginda, onartutako dirulaguntza osoa ordainduko da.

Eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko dira, frogagiriak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita.

Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta bertan adieraziko dira haren aurka jar daitezkeen errekurtsoak. Ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

9. oinarria. Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak

Administrazio batzarrak egiaztatuko balu, dagozkion kontabilitate dokumentuak aurkeztuta, fakturaren bat ezin duela ordaindu, udalak beharrezko dirua sar lezake haren kontuan; administrazio batzarrak hamar egun izango lituzke, diru transferentzia egiten zaionetik aurrera, ordainagiria aurkezteko.

10. oinarria. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin emandakoekin, baldin eta dirulaguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada. Jasotakoa gastua baino gehiago bada, murriztu egingo da dirulaguntza, gastua eta laguntza parekatu arte.

Iruraiz-Gaunako Udala ez den erakunderen baten dirulaguntza jaso dutenek adierazi beharko dute zein erakundek eman dien dirulaguntza eta zein izan den haren zenbatekoa.

11. oinarria. Dirua itzultzeko prozedura

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Iruraiz-Gaunako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzan eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera izango da.

12. oinarria. Dirulaguntza galtzea

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, dirulaguntza errebokatu ahal izango da.

13. oinarria. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzaren bat sortzen bada, Iruraiz-Gaunako Udalak ebatziko du.

Hauek dira aplikatu beharreko oinarritzko arauak: dirulaguntzen udal ordenantza, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia.

14. oinarria. Argitaratzea

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta dirulaguntzen udal ordenantzak 4.4 artikuluan xedatutakoarekin, deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, baita Iruraiz-Gaunako udaletxeko iragarki taulan, ALHAOn eta udalaren web orrian ere, eta udalerriko kontzejuei jakinaraziko zaie.

15. oinarria. Errekurtsoak

Deialdi honen eta deialdi honetatik sortutako egintzen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epean eta moduan.